




Hemen gara berriro ere Aste Santuko oporren aurretik egindako lanen berri emateko. Lehenengo hiruhilekoan kontatu genizuen **ibilbide energetikoa** egin genuela eskolaren argiztapena eta berokuntza ezagutzeko.

Oraingoan energiaren gaian sakontzen jarraitu dugu.

### Zer da energia? Eta zein da bere harremana Garapen Jasangarriko Helburuekin?

Hauek izan dira oraingo gure lan lerroak. Energia bizitzaren iturria dela esan genezake. Forma desberdinetan agertu daiteke, propietate bereziak ditu eta iturri desberdinetatik lortzen da, batzuk berriztagarriak eta beste batzuk ez. Eta okerrera, gure lurraldean behar dugun energiaren soilik %7 ekoizten dugu berriztagarri moduan, horrek suposatzen dituen arazoekin:


- Bere erauzketak ondorioak ditu ingurumenean, jo dezagun petrolio erauzketa.
- Bere garraioan sortu daitezken istripuak.
- Erabilerak sortzen duen kutsadura eta ondorioz klima aldaketa.
- Eta sortzen diren hondakinak, arriskutsuenak hondakin nuklearrak izanik.



Baina jabetu gara kalteak ez direla soilik ingurumenean sortzen, arlo sozialean ere eta horren lekuko komunikabideetan askotan entzuten ari garena, prezio igoerak pobrezia energetikoa dakar.

### Zer egin dezakegu? Neurriak hartu noski, baina baita guk ere:


- Argiak eta gailu elektronikoak itzaltzeko ohitura hartzen ari gara.
- Geroz eta gehiago erabiltzen dugu garraioa publikoa.
- Berokuntza eta aire-girotuaren tenperatura kontrolatu behar da.
- Eta besteak beste, energia-iturri berriztagarrien erabilera eskatu ahal dela.



Baina nork ordaintzen ditu eskolako fakturak? Hirugarren zikloko ikastaldeak ariketa osagarri batzuk egin ditugu argindar eta gasaren fakturak ulertzeko.

**Ez dira zenbaki makalak!**

Programa honetan ditugun bidelagunek, aurreko urteko eskolako ekintza planean oinarrituta **“SEMAFORO”** bat egin digute. Zer betetzen dugu eta zer ez? Eta zein hobekuntza proposatzen dizkiogu udalari gure eskolarako? Semaforo hau informaziorako dugun “Txoko Berdeetan” jarri dugu eta laster jolasgunean jarriko dugu gurasoak ikus dezazuen.



**GURE OHITURA ENERGETIKOEN SEMAFOROA**

HIRUHILEKOAK

	1.	2.	3.
<b>ARGIZTA-PENA</b> Gelatik irrteterakoan argiak ITZALTZEN ditugu. Argi etengalluetan pegatinak jarri ditugu. <small>Hobekuntza: goiko solairuan LED motako argiteria instalatu. Hobekuntza: ate ondoko hileran piztuta dagoela bermatu.</small>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>BERO-GAILUA</b> Zer egiten dugu gelan beroa baldin badugu?: • Leihoak irekitzen ditugu. • Jertsea kentzen dugu. • Salatzan gara berogailua itzaltzen. Berogailuen gainean ez dugu ezer jartzten aire zirkulazioa ez oztapatzeko. <small>Hobekuntza: Hegaldekako gelaetan tenporizadore indibidualak jarri radiadorean.</small>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>AIREZTA-PENA ETA EGUZKI BAMBESA</b> Gela alreztatzeko: • Leihoak behar direnean irekitzen ditugu. • Leihoak beti irekita egoten dira. • Ez dugu alreztatzen. Argi naturala aprobetxatzeko: • Leihoetan ez ditugu kartelak jartzten. • Goizean pertsianak igotzen ditugu. <small>Hobekuntza: CO2 neurgailuak seinalea ematean aireztatu gela.</small>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<b>TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK</b> Ordenagailua eta pantaila ere itzaltzen ditugu erabiltz behar ez direnean. Arbel digitala ez dugu piztuta mantentzen egun osoz. Gure portatillak kargatzeko armarua beti dago piztuta. <small>Hobekuntza: gela guzietan regleta egokiak eta seguruak jarri. Hobekuntza: gelako kableakitu modu seguruan jartzeko obra eskatu. Hobekuntza: Mini eramangarrien armarua programatu gelaetan itzalita egoteko.</small>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Hau ez da dena izan, Euronet 50/50 programaren 3. saioa jolasean burutu dugu, **“Bonbi-sei” karta jokoan**, baina etzazue gaizki pentsatu, jolasaren helburua ondokoa izan da: gure eguneroko ekintza egokien bidez Garapen Jasangarriko Helburuak betetzera iritsi gaitzke, baina ekintza desegokiekin inoiz ez ditugu lortuko.



Argi dugu aurrean ez dugula aurrezpen ekonomikorik lortuko, Covid-agaratik leihoak maiz irekitzen ditugulako aireztapen egokia mantentzeko, baina aldi berean beroa xahutzen da bertatik.

**Hori bai! Gauza asko ikasten ari gara eta praktikan jartzen ari gara pixkanaka.**

